

Proiektu eta egoitza berria

2006ko irailaren 22an eman zitzaion irekiera ofiziala Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen egoitzari eta 2007an, leku bizia izateko xedez, hainbat egintza egingo dira bertan.

ibilibide luze eta oparoa du. 30 urte daramatza sagardo-ekoizleak koordinatzen eta haien interesak defendatzen. Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak herrialdeko ekoizle gehienak biltzen ditu. Hiru baino ez dira beste elkarte batean: Taldea. Duela hilabete gutxi, egoitza berria zabaldu dute Astigarragan.



Jose Mari Martinez

Astigarragako egoitzaren inaugurazio ekitaldiaren irudia.

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak 1977. urtean sortu zen, sagardogileen interesak defendatu eta sagardoa produktu gisa indartzeko asmoz. 30 urte luze pasa diren arren, badago oraindik ere helburu horietan lan egiteko premia.

Nahiz eta hogeita hamar urteko ibilbidea izan, elkarteak orain arte ez du egoitza propioa eduki, bere ekintzak aurrera ongi eramateko moduan. Lokal berriek, elkartearen betebeharrak egiteko administrazio bulegoek gain, beste areto bat dauka bilera edo asanbladak egiteko. Areto horrek beste ekintza batzuetarako aukera ere emango du, hala nola, ikastaroak, katak, etab.

Gipuzkoan eta Euskal Herrian sagardoak eta sagardotegiak indar handia hartu duten arren, badira merkatu honetan landu beharreko zenbait alderdi, sagardoaren erabilerari eta irudiari buruzkoak batez ere. Bestetik, kanpoko merkaturari begira, Estatu eta Estatu zuzenaren gainetik, ukitu gabe dago hein handi batean. Hau izan liteke produktua zabaltzeko eta merkatuak irekitzeko aukera ona.

Gipuzkoako Elkarteak, elkarrekin arreta emateaz gain, produktua gure mugez kanpo ezagutaraztea du helburu. Horretarako, nabarmentzekoa izan da azken bi urte hauetan Estatu-mailako aditu-azoketan parte hartzea: «Gourmets» delakoan, Madrilen, eta «Alimentarian» Bartzelonan, hain zuzen ere. Horrek Elkartearen ibilbide handia piztu du, jende asko agertu baita sagardoa ezagutzera. Orain ere momentu onean bagaudu ere, urteak joan ahala, honek hainbat eskari bat sortzea espero da.

Adituen azoketan ez ezik, Eusko Jaurlaritzak babestuta espainiar Estatu hiriburu batzuetan egiten diren turismo-promoziorako ferietan ere hartzen du parte Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak. Azoka horiek arrakasta izugarria izaten dute; beraz, Gipuz-

koako Sagardogileen Elkarteak, bere aurkezpen generikoarekin, sagardoa bazter guztietara eramaten jarraituko du.

Promozio-lan hauek guztiak, joan den ekainaz geroztik, Astigarragan kokatuta dagoen Elkartearen egoitza berrian prestatu eta kudeatzen dira. 2006ko irailaren 22an eman zitzaion irekiera ofiziala, eta xedea, besteak beste, sagardoaren munduaz edonori jakinaraztea du.

Hori dela-eta, egoitza eguneroko gestioak egiteko lekua izateaz gain, 2007an leku bizia izan dadila bultzatu nahi dute, eta horretarako, zenbait ekintza egingo dira.

Besteak beste, eskaintzen artean, ikastaroak, katak, erakusketak, lehiaketak etab. izango dira. Ikastaroak, hasieran behintzat, sagardogileen prestakuntzarako izango dira, hasi sagardogintza lantzetik eta sagardotegiaren gestio zuzena nola egin jorratzeraino.

Bestalde, sagardoa behar den bezala erabiltzeko ikastaroak ere eskainiko dira, ostalarientzat, batez ere.

Kata-ikastaroei dagokienez, sagardogileentzat edota sagardozaleentzat izango dira.

Programa hil honetatik, urtariletik, aurrera jarriko da martxan, eta bertan parte hartzeko interesa duena Elkartearekin harremanetan jar daiteke.

2007ak, beraz, egoitzari begira lan hori guztia ekarriko du, eta sagardoari begira, berriz, oso kalitate oneko produktua; beraz, sagardo berria probatzea besterik ez da gelditzen.

GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA

ELKARTEKIDEAK

ABURUZA • Tlf. 943692452	ELUTXETA • Tlf. 943556981	OLAIZOLA • Tlf. 943336731
AGINAGA • Tlf. 943366710	ETXEBERRIA • Tlf. 94355697	ORDO-ZELAI • Tlf. 943491686
ALBERRO • Tlf. 943550019	EULA • Tlf. 943552744	OTATZA • Tlf. 943801757
ALORRENE • Tlf. 943336999	GARTZIATEGI • Tlf. 943469674	OTAZU • Tlf. 943670044
ALTUNA • Tlf. 943554917	GAZTAÑAGA • Tlf. 943591968	OTEGI • Tlf. 943365029
ALTZUETA • Tlf. 943551502	GURUTZETA • Tlf. 943552242	OTSUA-ENEK • Tlf. 943556894
AÑOTA • Tlf. 943812092	IGELDO • Tlf. 943213251	PETRITEGI • Tlf. 943457188
ARAETA • Tlf. 943362049	IPARRAGIRRE • Tlf. 943550328	REZOLA • Tlf. 943556637
ARISTIZABAL • Tlf. 943492714	IRIGOIEN • Tlf. 943550333	RUFINO • Tlf. 943552739
ASTARBE • Tlf. 943551527	ITXAS-BURU • Tlf. 943555647	SAIZAR • Tlf. 943362228
ASTIAZARAN • Tlf. 943361229	IZETA • Tlf. 943131693	SARASOLA • Tlf. 943690283
AULLA • Tlf. 943806066	ISASTEGI • Tlf. 943652964	SARASOLA • Tlf. 94355746
BALEIO • 943491340	LARRARTE • Tlf. 943555647	SATXOTA • Tlf. 943835738
BARKAIZTEGI • Tlf. 943451304	LARRE-GAIN • Tlf. 943555846	SETIEN • Tlf. 943551014
BEGIRISTAIN • Tlf. 943652837	LIZEAGA • Tlf. 943468290	URBITARTE • Tlf. 943180119
BEREZIARTUA • Tlf. 943555798	MENDIZABAL • Tlf. 943555747	URDAIRA • Tlf. 943372691
BUENAVENTURA • Tlf. 659100392	OIANUME • Tlf. 943556683	URKIOLA • Tlf. 943210168
EGI-LUZE • Tlf. 943523905	OIARBIDE • Tlf. 943553199	ZABALA • Tlf. 943690774
ELORRABI • Tlf. 943336990	OLA • Tlf. 943623130	ZALBIDE • Tlf. 943652176

Nabarra Oñatz 7 behea • 20.115 ASTIGARRAGA
 Tel: 943336811 Faxa: 943333796
 E-mail: gipuzkoako@sagardotegiak.com • web: www.sagardotegiak.com